



Eta zuk, bisitari, ba al dakizu hemen euskaraz egiten dela?

Zumaiako kaleetan ikusiko dituzu hemendik aurrera. Gidak azalpenak emango dizkie turistei: euskararen jatorriaz arituko da, non egiten den eta zein euskalki dituen esango die, hiztun kopurua asmatzeko zirikatuko ditu. Ez dute *flysch* ospetsuaz hitz egingo, euskal nortasunaz, kulturaz eta euskarari buruz baizik. UEMAk sustatu du ekimena eta haien belarrietara iritsi dena kontuan hartuta, tankera horretako bisita gidatu bakarra da Euskal Herrian.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

Zumaian martxoan abian jarri duten *Enigma bizia* izeneko bisita gidatua turismoa eta herri euskaldunak lotzen dituen hausnarketaren ondorioa da. UEMAk kide diren Lekeitio, Bermeo, Zarautz, Zumaia, Oiartzun, Bortziriak, Baztan eta Leitzaldeko Udalak ari dira lanean.

Imanol Haro UEMAk teknikariak azken hilabeteotan egin dituzten gogoetak

zerrendatu dizkigu. Honakoa lehenengo: Euskarri turistikoetan (eskuorriak, liburuxkak, webguneak...) euskara nola agertzen den kezka dute eragileek. Batek, euskarriotan euskara gutxi darabilte; bestetik, bereziki kezkatzen dituen da euskarari buruz zein mezu ematen zaion bisitariari gune euskaldunetara doanean: "Europako hizkuntza zaharrena", "Euskara, babestu behar den altxorra"... Haroren esanetan museoko ondare agertzen da euskara. "Guk hizkuntza bizia jasotzea nahi dugu. Urola-Kostara datorren katalana edo frantsesa konturatu dadila euskaraz hitz egiten dela".

Zarauzko malekoia, negutik udarara azalberritzen

Lantaldean gogoetan ari diren udaletako euskara teknikariek eta UEMAk teknikariek bigarren hausnarketa jarri digute mahai gainean: gune turistikoetako hizkuntza joerak aztertuta, konturatu dira toki batzuetan hizkuntza aldaketa gertatzen dela negutik udarara. Zarauzko malekoi ezagunean azalberritu egiten dira terrazak. Neguan arbeletan menuak euskaraz daude eta udan ingelesez dira. Zerbitzariak lehen hitza euskaraz ez, baizik eta ingelesez edo gaztelaniaz egingo dizu. Taberna jabeak

Ezkerreko argazkian flysch ezaguna. Zumaia ikasertza saltzen die turistei. Martxoaren bukaeran ordea, "Enigma bizia" bisita eskaintzen hasi dira. Euskara, euskal nortasuna eta euskal kultura dituzte ardatz. Hilean pare bat aldiz programatu dute eta gaztelaniaz da oraingoz.

nahiago izango du zerbitzariak ingelesa jakitea euskara baino. Nafarroako herri txiki bateko adibidea eman digu Harok. Astean zehar euskararen erabilera neurtu zuten eta herri eskaldun baten maila ematen zuten. Asteburuan neurketak bera egin eta erabilera goitik behera erortzen zen.

Hirugarren hausnarketak bizipenen gabeziarekin du zerikusia. Hau da, turismo eskaintzan euskaldunak, euskal nortasuna eta euskal kultura saltzen direla uste du Harok, baina erakutsitakoa bizitzeko edo ikusteko esperientziarik ez dago. Hortara dator hain zuzen Zumaian Geoparkeak eskaintzen duen *Enigma bizia* bisita gidatua, zer garen azaltzeko ariketa praktikoa da.

"Euskara traba ala balio erantsia?"

Lekeition bi-hiru hilabete igarotzen dituen udatiarraren adibidea jarri digu Harok. Bilbo ingurukoak gehienak, eta askok euskaraz egingo ez badute ere, ulertzen dute, eta guraso ugari nahi dute haien seme-alabek euskaraz egitea Lekeition. Herrian bestelako jarrera hartu da ordea, ostalaritzak gaztelaniaz egiten du eta kultur ekintzak ere gaztelaniaz egin izan dira bisitariari begira. UEMAko teknikariak galdera botu du: "Herri turistikoek bisitaria nolakoa dela uste dute? Askotan euskaldunak gara bisitariak". Lekeition bisitariari galdetu zieten ea nolako esperientzia izan zuten euskararekin herrian, ea bazekiten euskara egiten zela, ea trabarik eragin zien... Ateratako ondorioa: "Bisitariarentzat ez da gauza negatiboa euskara, ez die trabarik egiten, eta neurri batean estimatzen dute". EAEko turismo datuak kudeatzen dituen Ibiltourrek antzeko ikerta egin zuten. Euskara alde negatiboetan edo positiboetan sartzen zuten galdetu zieten bisitariari. %98k ez zuten ez bat ez bestea aukeratu. Antzeko galdetegiak egiten ari da UEMA Leitzaldean, Zumaian eta Bermeon. Galdetegiaren helburua ez da soilik jakitea ea euskara traba den ala ez, baizik eta ea bisitariarentzat bertako hizkuntza entzutea, ikustea, arnastea, balio erantsia ere baden. ■

"ENIGMA BIZIA" BISITA GIDATUA ZUMAIAN

Bisita berria izaki, erakarriko duen jende kopuruaren zalantza Zumaia turismo bulegora hurbildu, eta hara, ia hamabost pertsona ate ondoan zain. Haietako batzuk badute euskararen aditza, baita gutxien-gutxieneko ezagutza ere. Hala erakutsi dute minutu batzuk geroago gidariak euskarazko hitzak esateko eskatu dienean: "egun on", "bai" eta "ez".

Gehiago jakin nahian, guztiak eman diote begiraturia *Enigma bizia* bisitaren hasieran banatutako hiztegiari. Gidariak ohartarazi die: "Zumaia euskararen espazio naturala da eta izango duzue hitzak erabiltzeko aukera". Iragarri du helburua, entzutea ez ezik, badela euskara eta euskal kultura ezagutzea: "Ezagutu eta dibertitu egingo gara".

Ohar horren ostean heldu dira euskararen inguruko lehen zehaztapenak: non egiten den eta zein euskalki dituen. Harridura eragin du parte-hartzaileen artean Luis Luziano Bonapartek egin izana, 1863an, euskalkien lehen mapa. Halaber, euskara batuaren erabilera nabarmendu du gidak; herriko bizilagunak ere badirenez parte-hartzaileen artean, hainbestetan gertatzen den iritzi trukaketaren lekuko izan dira bisitariak.

Aurrerago, jatorria izan dute hizpide: "Nondik dator euskara?". Ohiko galdera izan daiteke bisita hauetan; teoriak ugari, erantzun argirik ez. Euskarak inguruko hizkuntzetan izandako eragina, aldiz, jakina da, gaztelaniazko zenbait poematan nahiz hitzen sorreran, esaterako.

Toponimiak ere badu irakasgaririk, beraz, horri buruz aritu da gidaria. Zer esan nahi dute Talaimendi, San Miguel Artadi edo *flyschak* ikustera datozenek horrenbeste aldiz entzuten duten Algorri hitzek? Halaber, ingurunera begiratzen hasita, kaletan aurki daitezke garenaren pista ugari, errotulueta, adibidez. Aseguru etxea dio batek; etxearen esanahia azaltzeko baliatu dute, nahiz eta geroago aipatuko den etxeak -baserriak- gurean izan duen eta egun duen garrantzia zein pisua.

Guztia hitzez azaltzerik ez dagoenez, Odieta frontoian izan da hurrengo geldialdia. Pilota poltsatik aterata, norbaitek probatu nahi duen galdetu du gidariak. Hiruzpalau animatu dira, eta elkarren artean jolasean aritu ondoren sumatu di-

tuzte eskuko lehen minak, baita interesa ere, jokatzeko moduz galdezka hasi baitira. Horrez gain, herri kirolak eta arrauna izan dituzte hizpide.

Frontoiko animo oihuak atzean utzi eta bestelako doinuak nagusitu dira musika eskolaren aurrean. Txistua ardatz hartuta, hainbat euskal instrumentu aipatu dituzte: dultzaina, trikitia, txalaparta...

Halabeharrez, bidean aurrera eginda, beste turista batzuk topatu dituzte herria Espainiako Estatuan hain ezagun egin zuten filmeko—*Ocho apellidos vascos*— iturrian. Lantzeko gaia agerikoa: euskal abizenak. Han agertzen direnak omen dakizkete bisitariak; gaurkoan, horien jatorria -etxea, askotan- ezagutu dute. Maiorazkoa eta matriarkatua ere interesgune izan dira.

Bizibideaz jardunda, hasieran azaldu du gidariak arrantzak Zumaiaren ekonomian eta familietan izandako pisua, ondorioz, kofradian du bisitak azken-aurreko geldialdia. Arraina saltzeko modua ez ezik, arrantza euskaldunek nazioartean utzitako aztarnak plazaratu ditu gidak. Ternuara joandakoan *Apaizac hobeto* zeudela esaten zuten garaia ekarri du gogora, gerora bertako toponimian geratutako zenbait hitzekin batera.

Hiztun kopurua aintzat hartuta, egungo 7.000 hizkuntzen artean euskara zein postuan dagoen galdetu du. Erantzun baikorragoak kanpokoan bertakoan baino; halere, asmatu, inork ere ez. "Asko entzun dugu kalean, adin ezberdinetako jendeak erabiltzen du, nahiz eta batzuetan gaztelaniarekin nahasten duten", adierazi du batek.

Amaizteko, elkarte gastronomikoan batu dira hamaiketako egiteko bisitan parte hartutako madrildar, murtziar eta urte luzez Katalunian bizi izandako nahiz oraindik herrian dirauten zumaiarrak. Elkarrean funtzionamenduz, bisitaz, turistek bilatzen dutenez, eta abarrez aritu dira. Bisitaren zentzua barneratuta bezala, "egun on" hitza erabilia egin die diosal murtziarrak elkarte bazkaritara sartutako kideei. Alboan, haurrek hiztegitxoko hitzak errepasatzen jarraitu dute: "mila esker", "bat, bi, hiru, lau"...

lure Eizagirre